

MUTILOAKO UDALA

2020KO OTSAILAREN 19ko OHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeiko otsailaren hemeretzian.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.

Jule Aranburu Mariezkurrena.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

EZ BERTARATUTAKOAK:

Erkuden Aguirre Arruabarrena.

Aitor de Astobiza Uriarte.

Iñaki Zabalo Echezarreta.

IDAZKARIA:

Idoia Arévalo Benito.

BATZARRA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa

HASIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak..

HAMAIERA ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta laurden.

Alkatetzako gaiak

1.- Aurreko akten onespena.

Lehenik, eta aurreko Bilkurako aktak irakurri ondoren, 2019ko urriaren 22ko eta 2019ko abenduaren 12ko Bilkurei dagozkien aktakaho batez onartzen dira.


2.- Alkatetzaren Ebazpenak.

Jarraian Idazkariak, aurreko ohiko Bilkuraz geroztik egon diren Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du. Honakoak dira:

3.- Segura-Zerain-Mutiloako idazkari kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izaeraz hornitzeko hautaketa prozesuan martxan jartzea.

Gaia ez zen Batzorde Informatzaileen gai-zerrendan sartu, nahiz eta bertan udal-kideei berri eman.

Udal-kideek gaia Osoko Bilkurako gai zerrendan sartzeari bozkatzeko dute, eta aho-batez baietz erabakitzen dute.



MUTILOAKO UDALA

Orain arte Segura-Zerain-Mutiloako idazkaritza-kontuhartzaitza elkarte hornitu duen Gaitasun Nazionalako Funtzionarioak plaza utzi ondoren, aipatu idazkaritza-kontuhartzaitza hutsik aurkitzen da eta orain behin-behineko izaeraz plaza hornitzen ari den idazkari-kontuhartzailea gehienez 2020ko ekainaren 30erarte egon daiteke, Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritako Foru Aginduaren arabera.

Ezinbestekoa da beraz, hautaketa prozesu bat martxan jartzea. Horretarako oinarri batzuk prestatu dira, dagozkion espedientean daudenak.

Aski eztabaidatu ondoren, gaia bozkatu egiten da, Udal-kideek honako erabakiak hartuz:

LEHENENGOA: Aho-batez erabakitzen da Segura-Zerain-Mutiloako idazkaritza-kontuhartzaitza elkarte behin-behineko izaeraz hornitzeko hautaketa prozedura martxan jartzea.

BIGARRENA: Aho-batez, hautaketa prozedura arautuko duen oinarriak onartzea, zenbait akats zuzendu ondoren.

4.- 2020. Urterako langileen soldata igoera.


Joan zen batzorde informatzailean Udal-kideei gaiaren berri eman zitzaien.

2020ko urtarrilaren 22an, **2/2020 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 21ekoa**, argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE), **sektore publikoaren esparruko ordainsariei buruzko premiazko neurriak hartzekoari buruzkoa**.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horrek sektore publikoko langileen ordainsarien gehikuntzak arautzen ditu 2020. urterari begira, eta, ildo horretatik, soldata igoera finko bat, eta, ekonomiaren hazkundearekin lotuta, ehuneko osagarri bat gehitzea aurreikusten du. Zehazki, sektore publikoaren zerbitzura ari diren langileen gehikuntzak onartzeko ezinbestekoak diren zenbait alderdi arautzen ditu berariaz, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera eraginkorrak izango direnak; modu zehatzagoan, % 2ko igoera finkoa eta funts gehigarrietako % 0,3ko igoera xedatzen ditu; azken horiek, hain justu, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuetarako banatzen direnei dagozkie, eta, administrazio bakoitzean, erakunde sindikalekiko negoziazioekin daude lotuta.

Zehatz-mehatz, hauxe xedatzen du **2/2020 Errege Lege-dekretuak 3.Bi artikuluan**:

Bi. 2020an, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen ordainsariak ezin izango dira gehitu 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenak baino ehuneko bi baino gehiago, homogeneotasunaren arabera bi aldiatarako, langileei dagokienez nahiz haien antzinasunari begira. Xede horretarako, 2019ko ordainsarrietan, BPGd-aren bilakaerari lotutako ehuneko 0,25eko gehikuntza urteko zenbatekotan hartuko da aintzat. Oro har, gizarte-ekintzako gastuak 2020an ezin izango dute izan gehikuntzarik 2019koekiko. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jo da, ez daukatena zerikusirik egindako lanaren kontraprestazioekin, azken horien xedea zenbait premia asetzea baita, sektore publikoaren zerbitzura diharduten langile horien gorabehera pertsonalen ondorioz.



MUTILOAKO UDALA

Horrez gain, Barne Produktu Gordinaren gehikuntza, 2019ko prezio konstanteetan, ehuneko 2,5era edo gehiagora iritsiko balitz, soldata beste % 1 igoko litzateke 2020ko uztailearen 1etik aurrera. Adierazitako ehuneko 2,5 horretatik beheragoko gorakaden kasuan, gehikuntza proportzioan murriztuzko da, aipatutako ehuneko 2,5 horrekiko izan duen murrizketaren arabera; beraz, hauek izan dira gehikuntzak oro har:

BPGd-a 2,1 bada: % 2,20

BPGd-a 2,2 bada: % 2,40

BPGd-a 2,3 bada: % 2,60

BPGd-a 2,4 bada: % 2,80

Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako, BPGd-a igotzeari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urte bakoitzean argitaratutako BPGd-aren aurrerapenaren estimazioa hartuko da kontuan. INEk BPGd-aren aurrerapena argitaratu ondoren, eta enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko jarraipen-batzordeari jakinarazita, igoera aplikatzea onetsiko da, hala badagokio, Ministro Kontseiluaren erabaki bidez. Erabaki horren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udalerrri eta Probintzien Espainiako Federazioari.

Gainera, soldata-masaren ehuneko 0,30eko gehikuntza osagarria baimendu ahal izango da, besteak beste, produktibitatea edo eraginkortasuna hobetzeko plan eta proiektuak ezartzeko, funtzio parekagarriak dituzten lanpostuen artean dauden osagarri espezifikoak berrikusteko, destino-osagarriak homologatzeko, edota pentsio-planetako ekarpenetarako.


Aipatutakoa dela eta, eta EUDELeK emandako gomendioa jarraituz, zera erabakitzen dute Udal-kideek aho-batez:

LEHENENGOA:

3.Bi artikuluko lehen paragrafoan adierazten denari jarraituz, 2020ko urtarrilaren 1eko eraginkortasunarekin, Mutiloako udal langileen ordainsarien %2 aren igoera onartzea. .

BIGARRENA:

3.Bi artikuluko bigarren blokean zehazten denari lotuta, eta baldin eta Barne Produktu Gordinaren gehikuntzaren baldintzak betetzen badira, soldatak beste % 1 arte igotzea, gehikuntza horrek 2020ko uztailearen 1etik aurrera izango duelarik eragina.



MUTILOAKO UDALA

Hirigintza, etxebizitza eta zerbitzuak

5.- Cespa Gestión de Residuos, S.A. baltzuak zabortegia handitzeko xedearekin aurkeztu duen Arau Subsidiarioen aldaketa proposamenaren inguruan erabakia hartzea.


Udalkideei gaiaren berri eman zitzaien joan zen batzorde informatzailean.

2019ko azaroaren 18an, CESPA GESTIÓN DE RESIDUOS, S.A. baltzuak, arriskutsuak ez diren hondakinen zabortegia handitzeko xedearekin Mutiloako Udaleko Planeamenduzko Arau Subsidiarioen aldaketa eskaera egiten dio Mutiloako Udalari. Eskaerarekin batera, Ingurumen Azterlan Estrategikoaren Hasierako Dokumentuaren Zirriborroa eta Ingurumen Azterlan Estrategikoaren Hasierako Dokumentua.

Hura aztertu ondoren eta behar haina eztabaidatu ondoren, Udal-kideek ondorengo erabaki hauek hartzen dituzte, aho-batez:

LEHENENGOA: Cespa Gestión de Residuos, S.A. baltzuak egindako eskaera ez onartzea, Arau Subsidiarioen aldaketaren izapidetzea bertan behera utziz, arrazoi hauek direla eta:

- Mutiloako Udalak hondakinen harrera eta ezabatze zerbitzu publikoa 20 urte baino gehiagotan zehar burutu du. Udalak uste du herriak soberan bere gain hartu duela Espainiar Konstituzioak bere 45.2 artikuluan jasotako interes orokorraren onuran eta defentsan gizarteari eskainitako esfortzu solidarioaren egikaritzea.
- Udalak une honetan, Lurzoru eta Hirigintzaren 2/2006 Legean jasotako garapen jasangarriaren printzipioa lehentasunezkoztat jotzen du, zeinak hirigintza funtzio publikoa baliabide naturalen arazoizkoa eta jasangarria den erabilera bermatzen duen: Gune horretatik bide berde bat igarotzen da, egun oinezko eta bizikleta zale asko erabiltzen dutelarik; zabortegiak bai udalerrian eta batez ere inguruko baserrietan usain txarrak eragitea aurreikusten da.
- Orain dagoen zabortegitik gertu zenbait etxebizitza daude, planteatzen ari den hedapen horrekin oraindik ere gertuago egongo direlarik.
- Proposamen berriak, zabortegia Lierniko gunera oraindik ere gehiago gerturatzea suposatzen du, gune hori babes bereziko landa eremua izanik Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetan.



MUTILOAKO UDALA

- Mutiloako Udalak ez du nahi Mutiloaren irudia zabortegiari lotuta egotea.
- Udalak ez dauka ziurtasunik zabortegian egindako isurketen kontrol mailaren inguruan.
- Azken egunetan Zaldibarreko zabortegian emandako gertakariak, mota hauetako zabortegiek duten segurtasun mailaren inguruan zalantzak sortarazten dizkiote Udalari.
- Proposaturiko hedapena ez dago indarrean dauden Udalerriko Planeamenduzko Arau Subsidiarioetan aurreikusia; egindako proposamena gaian aplikagarri den udal-araudi esparrutik kanpo dago.
- Udalak, Zoru eta Hirigintzako 2/2006 Legean anparatuz jarduten du, Mutiloako Planeamenduzko Arau Subsidiarioen formulazioa, behin-behineko onarpena, baita onarpen probisonala ere, Mutiloako Udalari bait dagokio.


BIGARRENA: Akordio hau Cespa Gestión de Residuos, S.A.-ri jakinaraztea.

6.- Herriko plazan etxebizitza eta garaje baten (Mutiloa Bildua 1-B) besterentzea martxan jartzea.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaizen udal-kideei.

Udalak sustatutako Mutiloa Bildua 1-B.an kokatua dagoen 2-A etxebizitza eta garajea besterentzeko oinarriak eta prozedura azaltzen zaizkie udal-kideei, ardatzak honako hauek izanik:

- Etxebizitzaren lizitazio prezioa: 103.000,00 euro (dagozkion zergak kanpo)
- Garajearen lizitazio prezioa: 9.000,00 euro (dagozkion zergak kanpo)
- Eskaintzak aurkezteko epea: Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun natural.
- Aurkeztutako eskaintzak kontratazio mahaiak aztertu ondoren, kontratazio organoari (Osoko Bilkura) esleipen proposamena egingo dio.
- Osoko Bilkurak esleipena egingo du eta esleipendunari erabakia jakinaraziko zaio.
- Adostutako besterentzea, eskritura publikoan jasoko da.



MUTILOA UDALA

Gaia aski eztabaidatu ondoren, udal-kideek honako erabakiak hartzen dituzte aho-batez:

LEHENGOA: Udalak sustatutako Mutiloa Bildua 1-B.an kokatua dagoen 2-A etxebizitza eta garajearen besterentze prozesua martxan jartzea adostea.

BIGARRENA: Esleipen prozedura arautuko duten oinarriak onartzea.

7.- Fakturen onarpena.


Joan zen batzorde informatzailean udal-kideei onartzeke dauden fakturak aurkeztu zitzaizkien.

Bestalde, batzorde informatzaileetatik kanpo beste bi faktura aurkeztu dira. Ospatuko den hurrengo Osoko Bilkurararte itxaron ez dezaten, orain sartzea proposatzen da.

Udal-kideak adostasuna ematen dute.

Ondorioz, jarraian faktura eta diru-laguntza hauek onesten dira aho-batez:

1	ARANTZAZU LIZARRALDE: ESKULANAK	965,45
2	BIRZITEK ENGINEERING, S.L.:PLAN ESTRATEG.	3.932,50
3	LANDARRI, S.L.U.: HILERRIKO MANTENUA	1.182,85
4	ANTICIMEX: ARRATOIEN AURKAKO HITZARM.	408,94
5	ALMACENES JON, S.A.:HORNIGAIK	61,32
6	IÑAKI TELLERIA (OSTATUA):ZERBITZUAK	11,30
7	IÑAKI TELLERIA (OSTATUA): OLENTZERO	68,00
8	SABICO, S.A.:	45,38
9	IZFE: 2019-KO 4. HIRUHILEKO KUOTAK	1.433,27
10	IZFE: 2019-KO 4. HIRUHILEKO ERREZIBOAK	8,30
11	EUSKAL EDITOREA: BERRIAREN HARPIDETZA	110,50
12	ORONA: IGOGAILUA	204,08
13	ARKIMO, S.L.U.:ERROTATXO PROIEKTUA	1.815,00
14	CORREOS: 2019 ABENDUA	10,78
15	TECNIKRONOS: ELIZAKO ERLOJUAREN MANT.	432,45
16	GIPUZKOAKO BASO ELKART.: LURS.DIGITAL.	12.159,29
17	NEREA MENDIZABAL: HAURRESKOLA HITZAL.	233,75
18	MATTIN ELEKTRIZITATEA: GABON ARGIAK	108,90
19	IP21 INGENIERIA:Mutiloa Bildua ICT legeztatena	1.306,80
20	BABESA SUZAI:su-itzalgailuen errebisioa	207,18



MUTILOAKO UDALA

21	ILARKI: Etxez-etxeko zerbitzua urtarrila	758,10
22	BERRI LANTEGIA: HORNIGAIK	54,00
23	HOSFRINOR: Ostatuko izotz makinaren konponketa	83,49
24	MAKELSA: URTARRILEKO FOTOKOPIAK	104,33
25	URGO: GARBIGAIK	50,09
26	BIG-MAT URBIL: HORNIGAIK	81,88
27	CORREOS: URTARRILEKO FAKTURAK	4,39
28	IBERDROLA: ordaintzeke geratzen diren frak.	1.005,83
29	HITZARO : LANGILEAREN GASTUAK	3.075,14
30	EXCAVACIONES GABIRI, S.L.:bide konponketa	1.621,40
	GUZTIRA	31.544,69

8.- 3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena Osoko Bilkurak eman dezala onartzea.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Legeak hornitzaileen fakturak onartzeko eta ordaintzeko ezarritako epeak eta Osoko Bilkurek duten maiztasuna kontutan hartuz, epe hauek betetzeko zailtasunak ditu Udalak maiz.

Aurreko zioa ikusita eta praktikotasunari begira, zera proposatzen da: Osoko Bilkurak 3.000 eurotik goragoko fakturak onartzea eta alkateak, ebazpen bidez, aipatu kopuru horretatik beheragokoak.


Gaia bozkatu ondoren, proposamena aho-batez onartzen da.

9.- Goiekiko kapital gehikuntzaren onarpena.

Joan zen batzorde informatzailean, Goierriko Ekimenak, S.A.-k kapital gehikuntzaren inguruan egindako txostena helarazi zitzaien udal-kideei.

Horren arabera, printzipioz, Mutiloako udalari dagokion kapital sozialaren gehikuntza metalikoan, 9.155,73 eurokoa litzateke.

Gaia bozkatzen da, proposamena aho-batez onartzen delarik.



MUTILOAKO UDALA

10.- 2020. Ekitaldiko udal aurrekontuaren behin-behineko onarpena.

Joan zen batzorde informatzailean, 2020. Ekitaldiko udal aurrekontuen proposamenaren berri eman zitzaion udal-kideei.

Gastu eta sarrerei dagokienez, 2020. Ekitaldirako, 954.221,95 euroko aurrekontua aurreikusten da.

Proposamena aski aztertu ondoren, Udal-kideek zera erabakitzen dute aho-batez:

LEHENENGOA: Mutiloako udaleko 2020. Ekitaldiko aurrekontua behin-behineko izaeraz onartzea.

BIGARRENA: Aurrekontua jendaurrean jartzea 15 lanegunetan zehar, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarki baten bidez, interesatuek alegazioak aurkeztu ditzaten.

Adierazitako jendaurreko epea agortu ondoren inolako erreklamaziorik aurkeztu ez bada, Aurrekontu Orokorra behin betiko onartutzat joko da, horretarako beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

11.-Galde-erreguak.

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko zortzirak direnean eta horren sendespena, nik, Idazkariak egiten dut.